

## **GOBERNU BATZARRA**

2007.01. 08

<b>Alkatea:</b>	<b>Tolosako Udaletxean, bi mila zazpiko urtarrilaren 8an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 8.00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrenda aztertzeke eta erabakiak hartzeko:</b>
<b>Jokin Bildarratz Sorron</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	
<b>Andoni Iturzaeta Arbillaga</b>	<b>1.-Aurreko akta onartzea.</b>
<b>Onintza Lasa Arteaga</b>	
<b>Jose M. Vieites Gomez</b>	<b>2.-Tolosako Babarrunaren kofradiari ekarpena.</b>
<b>Idazkaria:</b>	
	<b>3.- Igarondo elkarteari ekarpena.</b>
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	<b>4.-Txuleta-aren festa. Likidazio ekonomikoa.</b>

Lehenik eta gai zerrendatik kanpo honoko gai hau ikusi da:

### **Haurreskola**.-

Aurtengo Gabon egun inguruan Haurreskolan sartu eta umeen baseritar jantzi batzuk lapurtu zirela kontu eman da, eta horrelako zerbait ere (ume sila bat desagertu) orain dela hilabete batzuk sortu zela jakinerazi da.

Aztertu da haurreskolako sarrera egokitu egin behar dela horrelakorik berriz gerta ez dadin, edo gutxienez zailtasun gehiago sortzeko.

Hori guztiagatik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENIK**.- Haurreskolaren sarrera kontrolatzeko jarri behar diren neurriak aztertzea eta proposamena aurkezteko eskatzea zerbitzuetako teknikariei.

**BIGARREN**.- Erabaki honen berri injineruari eta Hezkuntza eta Euskara departamentuari ematea.

#### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2006ko abenduaren 26an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

#### **2.- Tolosako Babarrunaren kofradiari ekarpena.**

2006an Tolosako Babarrunaren Kofradiak egindako ekintzen aurrekontuarekin aurkeztutako txostenaren berri eman da. Gaia aztertu ondoren, eta Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, Gobernu batzarrak

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Tolosako Babarrunaren Kofradiari 1.866,60 €ko ekarpena egitea, "481.01.3221 Elkarteei dirulaguntza" partidatik.

**BIGARREN**.- Tolosako Babarrunaren Kofradiari ekintzen memoria aurkezteko eskatzea.

**HIRUGARREN**.- Erabaki honen berri, Kontuhartzaitzari eta Tolosako Babarrunaren Kofradiari ematea.

#### **3.- Igarondo elkarteari ekarpena.**

IGARONDO elkarteak 2006an egin dituen ekintza ezberdinak azalduz aurkeztu duen txostenaren berri eman da. Gaia aztertu eta Garapen ekonomiko, turismo eta enplegu batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Igarondo elkarteari 4.533,40 €.ko ekarpena egitea, "481.01.3221 Elkarteei dirulaguntza" partidatik.

**BIGARREN**.- Igarondo elkarteari, Kontuhartzaitzari eta Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentuari ematea.

#### **4.- Txuleta festaren festa. Likidazio ekonomikoa.**

Abenduaren 6tik 10era Zerkausian egindako TXULETAREN FESTAREN aurrekontua ikusita, (120.443,19 €koa), Gobernu batzar hau jakinaren gain geratu da diru-kontzignazio nahikoa egina dagoela gastuari aurre egiteko.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia sartzea erabaki da:**

<p><b><u>Bakearen eta elkarrizketaren alde” manifestazioa ETAREN azken atentatuari erantzuteko.-</u></b></p> <p>ETAk, 2006ko abenduaren 30ean, Madril-Barajas aireportuan egin zuen atentatu basatiaren aurrean, Gobernu batzar honek, aho batez,</p> <p style="text-align: center;"><b>ERABAKI DU</b></p> <p><b><u>LEHENIK.-</u></b> Eusko Jaurlaritzako lehendakariak datorren larunbaterako-2007ko urtarrilak 13, Bilbon, 17:00etan- deitzen duen manifestazioarekin bat egitea, ETARI indarkeria uzteko eskatzeko eta alderdien arteko elkarrizketa bultzatzeko.</p> <p><b><u>BIGARRENIK.-</u></b> Tolosar guztiak gonbidatzea manifestazio honetan parte hartzera.</p>	<p><b><u>Manifestación “Por la Paz y el Diálogo” como respuesta al último atentado de ETA.-</u></b></p> <p>Ante el brutal atentado de ETA del pasado día 30 de diciembre de 2006, en el Aeropuerto de Madrid-Barajas, ésta Junta de Gobierno, por unanimidad,</p> <p style="text-align: center;"><b>ACUERDA</b></p> <p><b><u>PRIMERO.-</u></b> Adherirse a la manifestación que convoque el Lehendakari del Gobierno Vasco, para el próximo sábado día 13 de enero de 2007, a las 17 horas, en Bilbao, a fin de exigir a ETA que ponga fin a la violencia y para apoyar el diálogo entre los partidos.</p> <p><b><u>SEGUNDO.-</u></b> Invitar a todos los vecinos de Tolosa a que participen en la marcha convocada.</p>
---	--

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**